



Meñakarron artean, EUSKARA NAGUSI!!!

**URRIAREN 5an, Meñakarrok
hasiera emango diogu
Euskaraldiaren izen emateari.**

Ostiraletan herriko erdigunean egongo den mahaian eman izena. Bestela interneten bidez egin dezakezu. Edozein galdera edo iradokizun baduzu, idatzi mezu bat honako helbidera: **menaka.euskaraldia@gmail.com**



Badator Euskaraldia, Euskal Herri osoko kaleak euskaraz zipriztinduko dituen ariketa soziala, azaroaren 23tik abenduaren 3ra meñakarron hizkuntza-ohiturak astindu eta euskaraz bizitzera eramango gaituen 'jolasa'. Meñaka euskaraz bizitzera, euskaldunekin euskaraz egitera eta ariketa gurekin egitera gonbidatzen zaitugu.

Asko gara hizkuntza-ohiturak astindu eta euskara gehiago erabili nahi dugunok. Kalera aterako gara Meñaka uste baino askoz euskaldunagoa dela erakusteko. Elkarrekin lotsak eta aurreiritziak astindu eta ohiturak aldatzea errazagoa delako.

**Erdu! Denon artean Meñakako
euskararen erabilera areagotuko dugu!**

